

**BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAREN ETA BOR-BOR BORTZIRIETAKO  
EUSKALTZALEEN MUGIMENDUAREN ARTEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA  
*BORTZEGUNA* ANTOLATZEKO**

**HONAKOAK BILDURIK**

Batetik, **Leire Mitxelena Gamio** andrea, Bortzirieta Euskara Mankomunitateko lehendakaria, Mankomunitatearen izenean eta haren ordezkari ari dena (IFK: P3126685A). Bertetik, **Leire Errandonea García Larratxe** andrea, Bor-bor Bortzirieta Euskaltzaleen Mugimendua izenean eta haren ordezkari ari dena (IFK: G71470827) . Sinatzaileek elkarri aitortzen diote eskumen juridiko nahikoa agiri hau izenpetzeko, eta nor bere erakundearen ordezkari izanik, horren arabera jardunik eta elkarren adostasunez,

**HONAKOAK AZALDU DITUZTE**

- I. Bor-bor Bortzirieta Euskaltzaleen Mugimendua Bortzirieta Euskara Mankomunitatearekin harremanetan paratu dela *Bortzeguna* izeneko ospakizunaren barrenean antolatu duten ekintza multzoa gauzatzeko finantzazioa eskatzeko. Egun hori Etxalarren ospatuko da, 2024ko urriaren 12an.
- II. Bortzirieta Euskara Mankomunitatearen 2024ko jardueren planean eta aurrekontuan onartua dagoela Bor-bor Bortzirieta Euskaltzaleen Mugimenduaekin elkarlanean aritzea eta talde horren jardura diruz laguntzea.
- III. Hori guztia aintzat harturik, bi alderdiek dirulaguntza hitzarmen hau sinatzea erabaki dutela, ondoko klausula hauei men eginda:

**KLAUSULAK**

**LEHENA.- XEDEA**

Hitzarmen honen helburua da Bor-bor mugimendua jardura eta zehazki talde horrek antolatutako *Bortzeguna* ospakizuna finantzatzeko dirulaguntza zuzenaren baldintzak arautzea.

Honakoak dira ospakizun horren helburuak:

- Bortzirieta euskaltzaleak elkartzea.
- Euskararen egoera karrikara ateratzea.
- Euskara sentimendu positiboekin elkartzea.

Hau da antolatutako programazioa:

- 10:00etan diana Bortzirietako txistulariekin
- 11:00tan herri kirolak eta jokoak. Herrien arteko lehia.
- 13:00etan Euskara karrikaren bueltan kalejira. Bortzirietako trikitilariak eta panderojoleak lagunduta.
- Ondotik, adierazpena.
- 14:30ean herri bazkaria (Asaua) eta ondotik bingoa.
- 17:30ean dantzaldia Jeiki Hadi taldearekin.
- 19:30ean Alarma morea taldearen kontzertua.
- 21:00etan Fifi&Fefa DJn emanaldia.

## **BIGARRENA.- BOR-BOR BORTZIRIETAKO EUSKALTZALEEN MUGIMENDUAREN BETEBEHARRAK**

Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduak honako betebeharrak hartzen ditu bere gain, mankomunitatearen diru ekarpena jasotzearen truke:

- *Bortzeguna* ospakizunaren baitan diruz lagunduko diren ekintza multzoa antolatzea eta gauzatzea.
- Egunaren berri ematerakoan mankomunitateak diruz lagundutako jarduera dela aipatzea, komunikaziorako erabiltzen diren euskarri grafikoetan erakundearen logotipoa erabilita.
- Dagokion epean, jardueren gauzatze mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru kontuak egoki zuritzea.

## **HIRUGARRENA.- BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAREN BETEBEHARRAK**

- Diru ekarpenaren ordainketa zehaztutako modu eta garaian egitea.

## **LAUGARRENA.- EKARPEN EKONOMIKOA: KOPURUA ETA ORDAINTZEKO MODUA**

Ekarpen ekonomikoaren kopurua aunitz jota 1.500 eurokoa izanen da, eta, horretarako, mankomunitateko aurrekontuan “BOR-BOR DIRULAGUNTZA” izenarekin izendatutako partidako kreditua erabiliko da (1 3350 4820011 partida). Dirulaguntza ordainketa bakarrean pagatuko da, taldeak eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta mankomunitateak laguntza ebatzi ondotik.

Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduak ezin izanen du inolaz ere jaso *Bortzeguna* antolatzeke lagundutako jardueraren kostuaren % 100etik goitiko diru ekarpen publikorik.

Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimendua balorazio txosten bat aurkeztu beharko du *Bortzeguna* akabatu eta gehienez azaroaren 30a baino lehen, eta bertan jaso beharko ditu:

- *Bortzeguna* ospakizunaren barne antolatutako jardueren berri zehatza.
- Gastuen eta diru sarreraren balantzea, fakturen eta bertzelako agirien kopiak erantsita.

### **BORTZGARRENA.- HITZARMENAREN ERAGINAK ETA INDARRALDIA**

Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek bere horretan eusten diete beren ahalmenei eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietatik, ez bertzerik.

Hitzarmen honen indarraldia, ondorio guztietarako, aldeek sinatzen duten egunean hasiko da eta mankomunitateak ordainketa egiten duelarik akabatuko da.

### **SEIGARRENA: HITZARMEN HONEN IZAERA JURIDIKOA ETA GAZTAKAK EBAZTEA.**

1. Hitzarmen honen izaera administratiboa da.
2. Mankomunitateari dagokio hitzarmenaren aplikaziotik eratorritako interpretazio eta betetze arazoak ebatzea.
3. Alderdiak, hitzarmen honen aplikazioaren ondorioz sortzen diren auzietan, Iruñeko administrazioarekiko auzien ordena jurisdikzionalaren mende jarriko dira espresuki, eta legokiekeen beste edozein foruri uko egingen diote.

Eta hitzarmen honek dioenarekin ados daudenez gero, bi aldeek, hitzarmen hau sinatu dute sinaduran ageri den datan.

Leire Mitxelena Gamio  
Bortzirietako Euskara Mankomunitateko  
lehendakaria

Leire Errandonea García-Larratxe  
Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen  
Mugimenduko lehendakaria